

TOKIKOM **Pil-pilean**

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko ekaina • 292. alea

A photograph of two women standing on either side of a large, textured tree trunk. The woman on the left has curly brown hair, is smiling, and wears a grey t-shirt, a light blue denim jacket, and light blue jeans. The woman on the right has dark hair with bangs, wears glasses, a green military-style jacket with silver accents, and a black ruffled skirt. They are standing on a paved area with more trees and a building in the background.

**Nerea eta Nagore
ekintzailetasunean eredu**

Elgoibar Arreiturre BHI 2014-2015 ikasturtea



Elgoibar Arreiturre BHI
Arreiterre 2
Tel.: 943 748 397
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net
www.elgoibarbi.net

MATRIKULA ZABALIK
DBHn eta Batxilergoan

Ekainaren 23tik
uztailaren 4ra



Euskalzaletasunaren alde:



PAFOSUL CHURRUOLA, S.A.

Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontia ikusiedina
- Implantak

DOHANEKO BERRIKUETAK
FINANZAKETA ZURE NEURURA
KONPRONIOARIK GABEKO KONTAKUNTUA

MUTUALIA, PADI (haumen arretarako hortz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizpea 3 beheko, Soraluze

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11

KM
Desing

Disenua eta Formena

Pellegona Amillaga, n° 5
Tel.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

ARMENDIA
JATETKEA

Ezozi Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA



Markel Arizaga Aitor Madrid

Ez dakizu ezer

Berriro aldizkarian idazteko momentua, Aitor.

Nere burutazioak idazterakoan interesatzen zaidan gai bati buruz nere iritziak nola plazaratu pentsatzen hasten naiz. Iritziak iritzi besterik ez dira, eta desadostasunak agertzea horren parte da, parte aberatsa esango nuke, gainera. Hori jakinda, orde, gutxienez egiari kalte handiegirik ez egiten saiatzen naiz.

Baina ez da berdina gertatzen beste batzuek idatzi edo kontatzen dutenarekin. Azken hilabeteotan telebista gabe nago etxean, eta askok pentsatu zuten horrek desinformazioaren basamortura bidaliko ninduela. Ez da horrela izan, zorionez beste informazio iturri asko baitaude gaur egun. Uste dut ez nagoela gainontzeko guztiak baino desinformazio maila altuagoan, informatuta egotetik nahiko urrun dagoen zerbait.

“Desinformazioaren kontra zerbait egiterik dagoen edo ez galdetzen diot nere buruari”

Manipulazioa beti hor egon den osagai bat da, ez naiz ni etorriko 2014. urtean hori frogatzera, baina azkenengo urteetan gero eta begibistakoagoa den desinformazio horren kontra zerbait egiterik dagoen edo ez galdetzen diot nere buruari.

Komunikabide bakoitzak bere kolorea dauka, ideologia oso markatua rekin, eta argi eta garbi markatutako publikoa du. Hortik irteten den edozer komunikabide horretan agertuko ez den albiste bat izango da, edo erabat eraldatutako gertakari batzuk erakutsiko dira pentsamendu kritikoa guztiz galduta duten informazioaren hartzaileen gusturako.

Errealitatea ez bada lagungarri, errealitatea aldatu, eta errealitatea ez bada nahikoa, bakoitzaren interesak defendatuko dituen errealitate bat sortu, munduan gertatzen denari buruz ezer jakitera eramango gaituen jokamoldea da.

Aupa Markel!

Garbi izan behar dugu bakoitzak errealitatea ikusteko era bat dugula. Berezia. Munduari so egiteko ikusmolde subjektiboa. Norberak bere iritzi eta sentimendu ezberdinak dituelako eta horrek aurrean duguna interpretatzen dugunean distortsionatu egiten duelako, nolabait, begirada hori. Hori, hala ere, aberasgarria da. Eta komunikabideak pertsonak egiten dituztenez nahi eta nahi ez agerian gelditzen da beraien marka gertakarien aurrean. Hori horrela izanik ere, oso komenigarria da enpatia erabiltzea gertakarien aurrean. Hau da, beste ikuspuntuak aztertzea, lagunen lekuan jartzea eta begi horiekin ikustea pasa dena. Baina horretarako gogoia eta denbora behar da, eta bizi garan munduko alde honetan eskas gabilitza bi osagai horietan. Arrazoa dugula sinistuta bizi gara eta besteen lekukotasuna zokoratu egiten dugu, eta, gainera, denbora galtze bat dela uste dugu. Oker gabilitza.

“Arrazoa dugula sinestuta bizi gara eta besteen lekukotasuna zokoratu egiten dugu”

Gero eta ohitura handiagoa dago informazioa manipulatzeko. Edo bestela egi osoa ez esatekoa. Gezurra kontatu eta hamaika aldiz errepikatu, horrela jendeak sinets dezan, azal dutako bertsio oker hori. Hainbat teknika daude informazioa desitxuratze-ko, gomendagarria da Noah Chomsky filosofoak azalduta dituen errealitatea manipulatzeko hamar teknikak irakurtzea. Begiak zabaldu eta ez sinesteko beti kontatzen dizkiguten albiste guztiak. Heltzen zaigun informazioa ugaria da, eta, denbora hartu beharra dago dena aztertzeke, ikertzeke; sosisuz, gure ikuspegitik eta besteetatik pasatu ostean sinesgarria den edo ez ikusi.

Gutunak

Soraluzeko Gure
esku dago

Elkarlanaren indarra

Ekainaren 8ko giza-katea ederra izan zen. Ez bakarrik horrenbeste milaka herri-
tar eskubide demokratiko baten alde mobilizatu izanagatik, baita, eta batez ere,
herriarrok geronek antolatutako ekimenaren arrakastak gure gizartean aspaldi
ikusi bariko ilusioa sortu duelako.

Hilabete askotako lanaren fruitua izan da, eta ez da izan gutxi batzuen lana.
Ez dira asko izango lagundu barik gelditu diren herriarrek. Modu batera edo
bestera; errifak erosita, 140 castellersi jaten emanaz, 500 kiloko harriari tiraka,
mendian gora erreboak eginez, izena-emateko mahaletan txandak eginda...
ehundaka izan dira euren hondar alea ipini dutenak.

Zergatik egin dugun? Nahi dugulako.

Zer lortu dugun? Ezberdinen arteko kooperazioaren eta elkarlanaren bitartez
ezinezkoaren marra dezentez harantzago eramateko gai garela erakutsi dugu.

Mundu osoan entzun da gure mugimenduaren irrintzia, gure herriaren aldarria:
erabakitzeko eskubidearena. Bejondeigula!

Soraluzeko
frackingaren
aurkako taldea

Frackinga Gipuzkoan

Aspaldian ezagutu genuen gasa ateratzeko teknika bortitza eta kutsakorra:
Fracking edo Haustura Hidrauliko izenekoa. Lurra, haizea, ura eta parean topa-
tzen duen guztia kutsatzen duena. Potzu bakoitzetik gas kopuru txikiak atera-
tzen dituztenez, errentagarri bihurtzeko, milaka potzu egin behar izaten di-
tuzte.

Aspaldian ohartu ziren horretaz guztiaz Araban eta berehala hasi ziren mug-
itzen teknika horren kontra; horretarako, taldeak sortu eta udaletxeetan mo-
zioak sartu zituzten Fracking bariko herriak izenda zitezen. Mobilizazio jen-
detsuak ere antolatu dituzte. Gero, Bizkaian mugitu ziren, eta oraintsu hasi
gara mugitzen Gipuzkoan. Jende askok ez dakien arren, gure probintzian ere
frackinga egiteko zundaketak egiteko plangintzak aurreratuta dituzte.

Hainbat herritan abiatu da sinadura bilketa. Herri ekimen legegilea aurkeztu
nahi dugu Parlamentuan, talde politiko guztiek gaiaren inguruan eztabaida
dezaten eta euren jarrera argi eta garbi azal dezaten. 30.000 sinadura behar
dira horretarako, eta erdiak inguru lortu ditugu dagoeneko. Maiatzean eta ekai-
nean zehar herriar askoren sinadurak batu ditugu Soraluzen. Ingurumenaren
egunean jarriko dugu berriz mahaia. Animatu sinatzera. Eztabaidatu dadin eta
gure lurra gehiago hautsi ez ditzaten.

Bittartetik



Martin Azkarate

Jaixekin datorrena

Bertan da uztailan hasieria, eta ho-
rren amaieria hilabete eskasera.
Ala? Bai, kontuak ez dia hain zailak.
Jaixak gañian dakaguz! Izango dogu
bai nun gozatu, barre eta, nola ez,
dantza ein. Badira aste batzuk he-
rriko gaztiak mugitzen hasi garana
egun pasa on bat antolatzeko as-
motan. Gainera, Galtzagorri, Gazte-
txe edota Kukumixon parte hartzen
dogunetaz gain, bada animau dan
bestelakorik be. Bai antolatu eta
baitxa parte hartzeko be, anima-
tzen? Oindiok bada zer pentsau eta
zer ein! Jai Herrikoien Aldeko Gaz-
te Mugimenduak herriko taldiekin
gozatzeko aukeria eskeiniko dosku
lehen eguna ondo bukatzeko zubi
nagusixan. Aspalditxotik dabizenak
eta hainbesteko esperientzia ez
daukenak be izango dia taula gai-
nian. Ostiralerako bada zerekin ja-
rraitxu bai tanborradako burrunbak
sortutako erritmua, erromerixiak!
Hurrengo egunian Surf taula hartu
eta olatu artian ibiliko gara surf mu-
sikan murgildu eta azkenian Rock &
Roll gau edar bat bizitzeko: Bagau-
da, Los Galerna eta Capsula! Baina
jaixakez dia zapatuan bukatzen. Do-
mekia goxo-goxo hasteko Napoka
Iria izango dogu bertan, kapitale-
tik zuzen-zuzenian. Gero, zorohai-
ziak aireratzeko: McOnak eta Tajon
Prieto eta kuajolotiak! Horrez gain,
antzerkixak, Famili Mbolo Afrikar
erritmuak zabaltzen kalietan barre-
na... Adi egitarauari eta bestelako
talziek proposatzen dutenei. Ezpain
hotsen artian bada musikarik!



“Momentua bizi nahi dut eta gozatu”

Unai Ormazabal
Eibar Futbol Taldeko fisioterapeuta



Unai Ormazabal, Eibar Futbol Taldeko fisioterapeuta.

Eibarko futbol taldea apala bezain trebea dio Eibar Futbol Taldeko eraserkiak eta halaxe dela baieztatu du Unai Ormazabal (Soraluze, 1981) fisioterapeutak ere. Denboraldi ezinhobea egin dute armaginek: liga irabazteaz gain, lehen mailara igotzeko txartela lortu dute. Azken zortzi urteetan Eibarko hamaikakoa egoera onean mantentzeaz arduratu da Ormazabal eta datorren urtean ere eurenkin batera Izarren Ligan arituko da.

Nola bizi duzu une hau?

Gure helburu nagusia bigarren mailari eustea izan da, Eibar moduko talde batentzat gogorra baita mantentzea. Denboraldiak aurrera egin ahala partidak irabazi eta play-offetan sartzea lortu genuen, eta orduan konturatu ginen aurreneko postuetan egoteak ate asko zabaldu ahal zizkigula. Azken norgehiagoketan taldea lehenen artean ikusteak izugarri motibatu gintuen, eta azkenean, sinetsi ezinda bada ere, lehen mailarako giltza eskuratu dugu. Lortutakoa historiara pasatuko da, badakigu, baina denbora beharko dugu egindakoaz konturatzeko.

“Eibarrek egin duenak meritu handia dauka”

17.000 lagun batu ziren Untzaga plazan. Zer izan zenuen gogoan?

Atzera begira jartzeko unea izan zen, momentu onak eta txarrak zetozkidan burura. Urte ona izan da, partidaz partida egin dugu aurrera, eta ez da lesio larririk izan. Lagunak eta familia gertu sentitu nituen, nahiz eta ikusi ez, eta egia esan, sekulako festa izan zen. Bi txaranga, kale antzerkia, jokalaria eta teknikoendako autobusa, kamioia jendez beteta... harrigarria eta hunkigarria aldi berean, eta afizioaren aldetik, txalagarria.

“Badakigu datorren denboraldia mediatikoagoa izango dela”

Bi urtetan bi maila. Zein da sekretua?

Eibarrek egin duenak meritu handia dauka, talde gutxik lortu dute. Denboraldi osoan jarraian bi partida baino ez ditugu galdu eta sailkapena eguneroko lanaren emaitza izan da: konstantzia eta erregularitasuna mantentzearen fruitua. Talde-lanean jardun dugu, apal-apal, pertsonalismoarik barik, guztiok bat eginda. Konfiantza handia dago teknikoen eta jokalarien artean, eta horrek asko errazten du zelaiko jokoa. Helburu apalak ezarri gintuen, epe motzean betetzekoak eta betetzen joan diren heinean, ametsa

egi bihurtu dugu: Eibar Lehen Mailako taldea da.

“Ikasi dut batera jokatzek zenbat balio duen”

Zela imajinatzen duzu Lehen Mailako jarduna?

Gure erronka partiduz partidu jardutea izango da, umiltasunez, baina ahalik eta indartsuen. Badakigu datorren denboraldia mediatikoagoa izango dela, eta zelaiek asko baldintzatuko dutela gure jarduna. Madrilen, Bartzelonan... jardutea eta jokalaria indartsuenen aurka jokatzeko ez da erreza izango, baina ez diogu beldurrik. Hala ere, gure apustua etxeko partidak izango dira, gure afizioaren babesarekin.

Noraino iristea gustatuko litzaizuke?

Momentua bizi nahi dut, lehen mailan ahalik eta gehien disfrutatu. Helburu nagusia denboraldia gogotsu hasi eta nire lana ondo egitea da, eta lasai jardutea. Azken urteotan bezain eroso sentitu nahi dut.

Eibarko taldeari buruz zer azpimarratuko zenuke?

Taldeak izan duen konstantzia, ausardia eta umiltasuna.

Aurten ikasi duzun ikasgaietako bat...

Batera jokatzeko zenbat balio duen...



Kontsumo ohitura arduratsuak sustatzeko kanpaina



Ingurumen egunaren antolatzaileetako batzuk.

Datozen asteetan "Ontziratuz zaitez" kanpaina jarriko dute martxan. Soraluzeko Zero Zabor, Alkarrekin, Udala eta Kutxa Ekoguneak elkarlanean abiatuko duten kanpainaren helburua harategi, urdaitegi eta arrandegietako papera eta plastikoaren erabilera murriztea da, zabor gutxiago sor dadin. Horren ordez tu-

perraren erabilera sustatuko da, etxetik eramanez edo bestela, produktu hauek saltzen dituzten komertzioetan tuperrak erosiz (0,5 euroko prezioan). Zozkatu ere egingo omen dira batzuek.

Ingurumen eguna

Uztailaren 5ean egingo den Ingurumen Egunean abiatuko dute kanpaina. Antolatzaileek azaldu dutenez, egunaren helburua da "ingurumenean dugun gehiegizko eraginaz jabeaztea eta kontsumo ohitura arduratsuak eta jasagarriak sustatzea". Hala, egun osoan zehar produktu ekologikoz osatutako azoka izango da, eta arratsaldean produktu ekologikoak egiteko ikastaroak eskainiko dituzte. Eguna amaitzeko kantu-afaria egingo da Plaza Barrixan, zero zabor filosofia oinarri hartuta. Txartelak salgai daude Iratxon, Arranon eta Gaztelupen.

Autoa ibaira

Martitzen goizaldean autoa jausi zen ibaira Mendiola industrialdeko zubitik behera. Ertzaintzak jakinarazi duenez, hurreratu zirenean ez zuten barruan inor aurkitu. Auto gidaria eta bidaiariak herrikoak zirela uste dute, baina ezin izan dute baieztatu. Zauritu larririk ez zela izan uste dute.



Debara joateko autobus zerbitzua martxan

Ekainaren 23az geroztik indarrean da Lurraldebus-Eusko Trenen udako ordutegia. Soraluzetik Debara joateko 12:25, 16:25 eta 19:25ean hartu ahaliko dira autobusak, Debatik bueltatzeko, berriz, 14:35, 17:35 eta 20:35ean. Arduradunek jakinarazi dute Eibarren autobus aldaketa egin beharko dela.

Presoen eskubideen alde

Herriko beste kuadrila batek presoen eskubideen alde batzeko deia egin du. "Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira" lelopean elkarretaratzea egingo da gaur, 20:00etan Plaza Zaharrean.



FotoNotizia



Giza-katearen indarra

450 soraluzetarrek baino gehiagok parte hartu zuten ekainaren 8an erabakitze eskubidearen alde antolatu zuten giza-katean. Soraluzetarrak 32. kilometroan izan ziren eta inguruko kilometroetan moduan, giro ona eta alaitasuna izan ziren nagusi. Soraluzeko Gure Esku Dago taldea oso gustora azaldu da herritarrek eman duten erantzunarekin.



Kalea jolasgune 169 neska-mutikorendako

Inoizko parte hartzerik handiena izango dute aurten Kukumixok antolatutako udaleku irekiek, 169 ume guztira. Tonucci psikopedadogoaren "Haurren hiria" irudikatuz kalea izango dute jolasgune. Istorio eta pertsonaiak asmatu eta hauen bitartez hezkidetzaz, kulturartekotasuna, inklusioa eta harremanak landuko dituzte. Hainbat adinetako haurrak elkarrekin ibiliko dira, batzar bidez antulatuko dira, eta erabakiak euren kabuz hartuko dituzte. Gaua pasatzeko txangoak ere antolatu dituzte: txikienek eskolan egingo dute lo, nagusiek berriz, San Andresen.

Ibaia garbitzeko saioa bihar Deban

Deba ibaia garbitzeko laugarren ekinaldia egingo da bihar. Ordubeteko bi saio antolatu dituzte, lehena goizeko 11:00etan eta bigarrena 15:30ean. Antolatzailerek erropa eroso eta oinetako egokiak eramatea gomendatu dute, eta 18 urtetik beherakoak heldu batek lagunduta joan behar dira. Interesatuak Debako Ines Arrinda pasealekura joan beharko dira.



Odol-ematea 18an

Gipuzkoako odol-emateen elkarteak odol-ematea antolatu du uztailaren 18rako, 18:30etik 20:30era bitartean Itxaropena jubilatuen etxean. Jakinarazi dute hurrengo saioa irailaren 19an izango dela, ordu eta leku berean.

Lau langile sei hilabeterako

Udalak lau langile kontratatu ditu datozen sei hilabeteetan lanaldi erdian jardun dezaten: Gotzon Elizburu, Iosune Egaña, Amaia Aldazabal eta Eneida Garitano. Hurrenez hurren, udalaren komunikazio tresnak hobetzea, herriko biodibertsitate zaindu eta kontsumo arduratsua bultzatzea, herriko merkataritza suspertzea eta herri identitatea indartzeko zenbait alderdi kultural lantzea izango dira bete beharko dituzten zereginak. Lanpostuok Eusko Jaurlaritzak Lanbideren bitartez udaletxei lanpostuak sor ditzaten emandako laguntzarekin finantzatu dira.

EAJK "poza" azaldu du kontratazio hauek egin direlako eta herrian lanpostuak sortzeko "erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatzea" proposatu du.



Gotzon, Iosune, Amaia eta Eneida.

tu du. Horrekin batera, gogorarazi du maiatzeko azkeneko datuen arabera herrian 361 pertsona daudela langabezian, lan egiteko moduan dauden herritarren %18,5a.

Heteroaraua arrakalatzeko elkarretaratzea

Komite Arroxak antolatutako *sexu askapenerako jardunaldien* barruan, ekainaren 28an, zapatuan, LGBT egunarekin bat eginez elkarretaratzea deitu dute *Heteroaraua arrakalatzeko, Soraluze arroxa erakiki* lemapean, 13:00etan Plaza Barrixan. Eguaztenean Arrakalak dokumentala proiektatu zuten antzokian eta ostean tertulia egin zuten.



Eguazteneko proiektzioa.

Kaleak eta parkeak berrituta

Udalak jakinarazi duenez herriaren erdialdea eraberritzeko lanak "martxa onean doaz eta zorionez lanik konplikatueneke ere ez dute eragozpen berezirik sortu". Datozen asteetan Santa Ana kalean arkupean aldera dauden aparkalekuak kenduko dituzte eta beste aldekoak baterian jarri. Aldaketa horien helburua, "inguruan oinezkoen ibilia erraztu eta bertako komertzioei arnasa ematea da". Kaleen eraberritze lanekin batera Estaziñoko umeen parkeak berritu eta Errekalden parke berria ezarri da.



EKINTZAILEAK

Posible da

Pentsatu duzu inoiz zure negozio propioa zabaltzea? Nerea Rodriguez eta Nagore Martinek pentsatu zuten, sinetsi zuten eta horretan dihardute, lehenago Victor Iriondok 50 urtean egin zuen bezala.



Nerea eta Nagore.

Udalak eta Debegesak ekintzaileentzako oraintxu antolatutako prestakuntza-tailleren zera azpimarratu dute: norbere negozioa martxan jartzeko "ausardia, gogoia eta konstantzia" behar dira. Lau soraluzetarrek parte hartu dute tailarrean, bakoitza bere enpresa proiektuarekin (ez dute atera nahi izan, oraindik gauzatu gabeko proiektuak direlako).

Kontabilitatea, komunikazioa, merkatu-azterketak eta beste hainbat konturen inguruko informazio praktikoa jaso dute, "baina ikasi duten gauzarik garrantzitsuenak izan da enpresa bat sortzea ez dela horren zaila, beti ere gogoia izanez gero eta ideia bideragarria baldin bada" adierazi du gidaritza lanetan jardun duen Vanesa Hortas Debegesako teknikariak.

Aholkularitza

Norbere negozioaren kudeaketan trebatu nahi duten herritarrendako hainbat ikastaro eskaintzen ditu Debegesak urtean zehar: marketing-planak egiteko laguntzetatik hasi eta emozioak bideratzen ikasteko coaching saioetaraino. Teknikarien aholkularitza eta enpresa munduan esperientzia luzea izan duten adineko pertsonen mentoretza ere eskaintzen dute. Herri txikienetako herritarrengana hurreratu nahian ikastaroak herrietan emateari ekin diote, eta Soraluzen ere Alkarrekin egitasmoaren bitartez, merkataritzako eta industria arloko jarduerak ekonomikoak sustatzeko ekimenak bideratzeko asmoa dute.

DIRU LAGUNTZAK

Debegesak 120.000 euro bideratuko ditu aurten enpresa proiektu berriak laguntzeko (Gipuzkoako Aldundiak Debabarrenerako bideratu dituenak). Jaso daitekeen gehieneko laguntza 7.000 eta 10.000 euro bitartekoa da. Horretarako, industria arloko proiektua, berritzailea, hiru lanpostu sortu dituen edo kooperatiba egitura duena izan behar du, jarduerak ekonomikorako erregistroan aurten alta eman duena. Azarora arteko epea dago eskaerak egiteko. Debemenen bitartez nekazaritza eta abeltzaintzako proiektuetarako laguntzak eska daitezke.

LILURA ESTETIKA ZENTRUA

Nerea Rodriguez

29 urte, estetizien tituluduna.

- 2005ean zabaldu zuen estetika-zentrua.
- Depilazioa (argizaria, laserra, orientala...), aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak (zelulitisa, grasa, zirkulazioa...) eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu.
- Zerbitzu horiek eskaintzen dituen bakarra da herrian.

“Ezinbestekoa da etengabe berritzea”

Nereak oso argi zeukan estetika munduan lan egin nahi zuela. Baita bere buruarendako egin nahi zuela ere. Hemeretzi urterekin hasi zen herriko ileapaidegi batean estetika zerbitzua eskaintzen eta handik bi urtera zabaldu zuen bere denda propioa. “Gaizki ateratzen bada hobe gazterik” pentsatu zuen. Ordutik hona etengabe dihardu ikasten eta zerbitzu berriak eskaintzeko inbertsioak egiten, “aurrera egiteko



Nerea bere estetika zentruan, betiko moduan irrifartsu.

ezinbestekoa da eguneratzea, bestela, bezeroak beste norabait doaz”.

Negozioa zabaltzeko orduan dirulaguntza publikoak eta familiakoen babesak asko lagundu zioten arren, “hasieran ez duzu dirurik ikusten eta gogorra da, baina nik argi neukan hasierako urteetan hala izango zela”. Nerearen ustetan garrantzitsuenak “lanerako gogoia izatea eta egiten duzuna gustatzea da. Nere lanak apasionatu egiten nau eta gustora etortzen naiz egunero lanera. Hori igarri egiten da”.

Victor Iriondo

Soraluce kooperatibako sortzailea



60. hamarkadan Victorrek eta beste berrogeita hamarren bat soraluzetarrek, Arrasateko kooperatibismoak gidatuta, eta Arizmendiarieta apaizak zabalitzen zituen ikuspegi eta bide berriei jarraituz, gaurko egunera arte iraun duen abentura kooperatibistari ekin zioten. Ordutik hona, ibilbide ekonomiko eta sozial oparoa izan du Soralucek. Badira urte batzuk Victorrek kooperatibako lanari laga ziola, baina berebiziko pasioarekin kontaktatzen ditu ibilbide horretan guztian bizitakoak.

Bere esanetan, gaur egunean ez bezala, titulaziorik bariko langileak ziren nagusi garai hartan eta lan-baldintzak oso gogorak ziren “gogoan daukat fabrika bateko nagusiak langilea jipoitu zuela”. Beste garai batzuk ziren. Horrek guztiak eta indartzen ari zen egoera ekonomikoak pertsona ekintzaileak sortzeko giro aproposa eragin zuen. Ekintzaileak ziren ekonomikoki eta sozialki. Gogoan du bide berriak urratzeak horrenbeste gazteri sortu zien ilusioa, gerora egin duten bidean azaldutako zailtasunak gaintzeko indarra eman ziena “jende askok nahi zuen guk porrot egitea”.

Lan egin behar izan zuten asteburuetan, poltsikotik diru-ekarpenak egin behin eta berriz, soldatak murriztu, eskaintzei muzin egin eta irabazi guztiak inbertsioetara bideratu, proiektua aurrera ateratzearren. “Akordatzeko naiz behin eskaera bat izan genuela bi hilabeteetan makina bat amaitzeko, eta jai eta aste lan egin genuela, eta zelako pozarekin gainera, elkarrekin”. Euren buruaren alde ezezki gizartearen alde ari zirelako. Gaur eguneko jardun ekonomikoaren eta gizartearen joera askorekin kritikoa da baina ekintzailetasunaren oso aldekoa, Arizmendiarietarena gogoan. Gainera, “bizi izateko beste daukat eta horrekin konforme bizi naiz”.

EGOTZAKO AHUNTZ GAZTA

Nagore Martin Ugarte

35 urte, Arantzazuko artzai eskolara ikasi du gazta egiten.

- Orain hiru urte ekin zion proiektua garatzeari eta orain dela aste bateko ekarri ditu berrogei bat ahuntz.

“Oso garbi izan behar duzu zer nahi duzun”

Nagore ahuntzak jartzera bultzatu duten arrazoiak asko dira: “asko gustatzen zaizkit eta inguru hauek garbitzeko egokienak dira. Neretako hau zoragarria da; batez ere, lan honek neure umeekin egoteko aukera ematen didalako eta nahiago dudalako ahuntzekin lan egitea kaboiekin baino. Baserria erosi dudanetik ez dut oporrik izan baina berdina dit. Nik hau nahi dut”. *Alpino* arrazako berrogeita hamar bat ahuntz ekarri ditu Frantziatik, “araza



Nagore bere familiarekin (ahuntzak barne).

garbikoak”, eta neguan, antxumeak jaio ostean, gaztak egiteari ekingo dio, Egotzako ahuntz gazta izenarekin. Dena modu naturalean egiteko asmoa du. Azpiegitura egin ahal izateko dirulaguntzak jaso arren, bere kabuz egin ditu lan asko, “bestela ezinezkoa litzateke”. “Halako zerbitzu egiteko garbi izan behar duzu zer nahi duzun eta horixe egiten ahalegindu.”

Gipuzkoako Aldundiak BEZa ordaindu eta beti fakturarekin funtzionatzearen aldeko kanpaina hasi du. Leloak honela dio: "Diru (B)eltza = etorkizun (B)eltza, enplegu (B)eltza, gizarte (B)eltza. (A) Gizartea lortzeko eskatu beti faktura. Zatoz ekonomia gardenera."

Zein iritzi duzu beltzean funtzionatzearen inguruan?



Aitziber Mayo

BEZarekin ateratzen den dirua hemen inbertituko balitz eta gastu sozialetara bideratu, gehiago funtzionatuko litzateke "modu legalean", baina diru hori estatuak kudeatzen du. Gainera, alde handia dago Beltzean funtzionatzearen eta BEZa ordaintzearen artean, eta horrek ez du laguntzen.



Jacinto Fernandez

BEZa denok ordaindu behar genuke ze bestela ez dago gizartea hobetzeko egin beharrekoak egiteko dirurik. Hala ere, BEZak ez luke horren altua izan behar. Zinerako sarreran horrelako BEZa ordaintzea, esaterako, da kultura heriotzara kondenatzea.



Cristina Cuenca

Gaizki, ze bestela ezingo litzateke egin erresidentziarik, errepiderik, ospitalik... eta abar. Egia da oinarrizko produktuetan halako BEZa izatea garestiegia dela, eta soldatak igo barik BEZa jasotzea ez dela oso justua. Dagoenetan geldituko balitz gaitzerdi, baina entzun dut igotzeko asmoa dutela.




Gorka Arriaga

Denok garbi jokatu bagenu ondo legoke, baina ikusita denak ahalegintzen direla BEZik barik jarduten, normala da ahal duenak beltzean funtzionatzea. Askotan tokatzen da beltzean jarduteko proposamena jasotzea eta oso legala izan behar da ezetz esateko.

Lehiaketa

Zein da?



Saria:

Txurruka jatetxean bi lagunentzako menua

Aurreko aleko erantzuna

Amaia Unamuno

Irabazlea



Izaskun Oregi

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atara eta hurrengo barixaku eguerdian egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidal ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Agenda

FUTBOL 7 TXAPELKETA

Ekainak 28, zapatua

9:00etan

PSL- Schalke te meto

Akeita – Fronton Team

10:15ean

Yokohama Chivas – Minavo de Kiev

Eusko Label – Bolaños

11:30ean

Artifices – Kastakuak

Costo de Marfil – Resto del Mundo

12:45ean

Tanghana – F.C. Marruecos

Makatzaga K.E. – Los Elegidos

Motzean

Sorako batzar nagusia

Soraluze Futbol taldeak urteko batzar nagusia egingo du uztailaren 9an (eguztzena) 19:00etan Txoko kafetegiko jangelan.

Iñaki Ruizen lasterketako izen-ematea

Uztailaren 13an jokatu da Iñaki Ruizen omenezko lasterketaren III. edizioa. Izen-ematea doakoa da eta ekainaren 30etik aurrera zabalduko da izena emateko epea: www.kirolprobak.com webgunean. Lasterketaren egunean bertan ere egin ahalko da inskripzioa, 8:30etik eta 9:15era bitartean, San Andresen bertan.

Barçako zaletuen afaria

Urtero batzen dira, afari eder baten bueltan Barçako zaletuak, eta aurten ere ez dute hutsik egin. Supercopa de España irabazi dutela ospatu dute, baita taldeak berak eginiko denboraldi txukuna ere.



Debarro txapela jantzi dute Atxotegik eta Bolinagak

Ekainaren 14an jokatu ziren Debarro txapelketako finalak Eskoriatzan. Soraluzetik bi bikote lehiatu ziren. Santamaria eta Aburuzak partida ikusgarria eskaini zuten Garate eta Zezeaga arrasatearren kontra. Lehia gogorra izan zen eta erdialdera arte parekatuta ibili ziren arren, azkenean 22-15 gailendu ziren arrasatearrak. Nagusien mailan Atxotegik eta Bolinagak jantzi zuten Debarroko txapela, Eneko eta Ander Muguruza bergarrei 22-19 irabazita.



Atxotegi eta Bolinaga saria jasotzen.

Sariak eta presidente berria


Nerea Atxotegi eta Garazi Katalan izan dira sarituak nesken kadete taldean, Fabian Romero, Julen Gomez eta Dani Suazo mutiletan, Egoitz Placencia eta Carlos Josuan Gonzalez jubentzetan, Jokin Arrillaga eta Oier Ariznabarreta erregionalean eta Beñat Katalan eta Ekiotz Alustiza preferentean. Luki Hontangasi presidentetza lagatzen duela eta, plaka bat eman zioten. Datorren denboralditik aurrera Miguel Angel Cenzualek hartuko dio erreleboa.



Katalan anai-arrebak saria jaso zuten.

Uztaileko boxeo jaialdian bi herritar

Uztailaren 18an boxeo jaialdia egingo da kiroldegian Ixa Rodriguez boxeolari soraluzetarrak bultzatuta. Jaialdia gaueko 22:00etan hasiko da eta amateur mailako bederatzi borrokaldi, eta profesioaletako bat jokatu dituzte; bost emakumezkoen artekoak eta beste bost gizonezkoen artekoak. Gainera bi herritarrek parte hartuko dute jaialdian; Ixa eta Lorea Murgoiok (azken hau Galizian bizi da). Egun bat lehenago, uztailaren 17an, profesioaetan lehiatuko direnak pisaketa-saioa egingo dute Gaztelupeko terrazan.



Herrian lehiatuko diren boxeolariak.

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarrekin
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. eb.
Tf: 943 75 17 82 Fax: 943 75 01 02

20590 Soraluze
GIPUZKOA

JUAN MARI
ARRAZINDEGIA
943 75 24 40
MERKATU PLAZA
ENKARRAK BIKO PLAZA KATIAZARRI
GIZEN ULERRAZO KONSUMITZAGETIKO

Ixa Rodriguez boxeolariak jaurtiko du jaietako txupina



Carlos de Cosek irabazi du aurtengo kartel lehiaketa.

Uztailaren 24an (eguna) 20:00etan emango zaie hasiera 2014ko Santiago – Santa Ana jaiei eta Ixa Rodriguez boxeolaria arituko da txupinera lanetan. Aldaketa handirik ez da izango aurtengo egitarauan baina adin tarte guztiei eskainitako egitaraua prestatu dute udaleko eta Galtzagorri jai batzordeek. Berritasunen artean, garagardo dastaketa, aire libreko margo lehiaketa, jaboï ponpa erraldoi tailerra eta saski baloi txapelketa daude. Musika arloan Beatles taldeari tributua, DJ Jon, eta Drindots izango dira Plaza Zaharreen; herriko taldeak, Ezten giro, Los Galerna, Kapsula, Napoka Iria eta Tajon prieto y los kuajolotes Zubian. Herritarrek antolatutako musika ikuskizuna Kubari eskainia izango da aurtentzen eta zezenak, danborradak eta umeentzat krosa ez dira falta izango.

Sagardoa txotxetik dastatzeko aukera zapatuan San Andresen

Uztailaren 12, 13 eta 14an ospatuko dira San Andres jaiak. Barixakuan makala tentetzea eta txorizo proba-



Harri jasotzea iaz, San Andresen.

tzea egingo dute elkartean baina jaiari zapatu eguerdiko kanpai bueltarekin emango diote hasiera. Emakumeen pala txapelketako finala eta V. Harria txapelketaren ostetik, sagardoa txotxetik eskainiko dute Lutxurdiok alaituta. Domekan Iñaki Ruizen omenezko lasterketa eta pelota partidak izango dira goizean, baita Unai eta Enaitz trikitilariak eta Mendiluze eta Lauburu bertsolariak ere. Eta astelehenean emakumeen bola txapelketa, bazkaria eta Lisazo eta Egaña bertsolariak arituko dira. Bazkarirako izen-ematea 635713408 (Oihana) telefonoan egin behar da.

Agenda

BERMUT MUSIKALAK

13:00etan Gaztelupeko terrazan

Uztailak 1, domeka

Noguel Quartet, Jazz klasikoa

Uztailak 6, domeka

Jimmy Barnatan bikoa

Uztailak 13, domeka

Blues & Decker

Uztailak 19, zapatua

La Jodedera

Uztailak 20, domeka

Rogelio Botanz

Ant: Gaztelupe taberna

Motzean

Abesbatzak Deban kantatuko du bihar

Debako Aitzuri abesbatzarekin batera arituko da 20:00etan, Santa Maria elizan. Gabriel Faure-ren Op. 48 Requiem-a interpretatuko dute, Francisco Javier Muru organo-jole bilbotarrak lagunduta. Uztailaren 19an izango da abesbatzak Santiago – Santa Ana jaietan eskaintzen duen ohiko emanaldia.

Nepali buruzko argazkiak ikusgai

Uztailaren 1ean, maritzena, "Nepal, hiria eta mendia" Fernando Retolaza argazkilari eibartarraren irudiekin erakusketa zabalduko du kontrargik. Argazkiak hilaren 19ra bitartean bisitatu daitezke.



Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-mail: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es

SAN ANDRES ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak, sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

Zorion agurrak



Elena Sierra Suañez
Ekainaren 24an, 11 urte
Zorionak!
Etxekoen partez!



Heraclia Maiztegui
Ekainan 3an 95 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat
zure hiloben partez.



Irene Perez Arribas
Ekainan 11n 17 urte!!
Zorionak Lore eta Josuren
partez!!



Garazi Aizpurua
Ekainan 12xan 11 urte!
Etxekuen partez muxu potolo
bat eta horrela jarraitu,
alai-alai!



Zaloa Garcia Rodriguez
Ekainaren 24an 6 urte!
Zorionak etxeko sorgin txikiari!
Jarraitu oin arte bezelako alai.
Txokolatezko muxu pila!



Angelua Murgoitio
Uztailaren 16an
Zorionak maitxia. Ilargiraino
eta bueltan maite zaitugu.
Haizea eta Leire.



Maddi Alberdi eta Aitor
Fernandez
Uztailak 13 eta 16an.
Zorionak bikote! Patxo
potolo bana!
Etxekuen partez.




Lide Sudupe
Uztailan 11an 4 urte!
Zorionak polittari eta muxu
haundi asko etxeko danon
partez!



Antxon Zubiaurre
Uztailan 8xan 10 urte!
Zorionak eta besarkada
haundi bat



Iker Criado Martín
Uztailan 16xan 7 urte!!
Zorionak mutil haundi!!
Askio maitte zaitugun guztion
partetik, bereziki Gorka,
Ariane eta Irearen partez.




Kattalin Sudupe Arrizabalaga
Ekainaren 8an jaio zen.
Ongi etorri poxpolin!
Etxekuen partez!

Jaiotakoak eta hildakoak



Ander Cruz Usobiaga
Nerea Castro Baena
Shujah Ahmed Javed
Haran Parajuli



Bernardo Maiztegi Unzueta
Elena Escribano Casco
Fernando Agirre Agirrebeña
Fructuoso Bartolome Cano

Iragarri laburrak

- Aldatuko nuke "Senderos de Euskal Herria" libura "Euskal Herria oinez"-en truke.



652 578 790 (Jabi)



ANDER CRUZ USOBIAGA
MAIATZAK 23

*Zorionak Robert eta Nekane!
Ongi etorri Ander!*

Etxekoen partez (bereziki birramona Maria Pilar)





Iturria: Soraluce kooperatibaren 50. urteurreneko liburua.

Soraluce eraiki zutenekoa

1960. hamarkadaren hasieran Soraluce kooperatiba sortu zuten Soraluzeko berrogeitamar gazte inguruk. Lantegia herrian jartzeko ahaleginak egin ostean, aukera egokirik bilatu ez eta udalaren aldetik ere laguntzeko borondate handirik ez zegoela ikusita, lantegia Osintxun eraikitzea erabaki zuten. Ordutik hona, lantegia asko hazi da eta ehundaka herritarri eman dio ogibidea gaur egun ere.



FERNANDO AGIRRE
2014KO EKAINAREN 14AN

*"Fernando, senarra, aitta, aittitta, laguna,
dana izan zara guretzat.
Beti maiteko zaitugu"*

Eskerrik asko doluminak helarazi dizkiguzuen guztioi.

Etxekoak



MARCELINO NIEVAS RAMIREZ
2014KO MAIATZAREN 24AN HIL ZEN,
85 URTE ZITUELA

*"Joan zarenetik hutsune handia dago gure artean. Aita ona
izan zinen, senar ezinhobea. Gogoan izango zaitugu beti."*

Familia

GURE ESKU BIDEA

Soraluzeko
GURE ESKU BIDEA



(B) Diru (B)eltza,
enplegu (B)eltza

“A” gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoa
BERRIA

Soraluzeko Ingurumen Eguna



- 9:00tatik aurrera **Azoka Ekologikoa** (20 postutik gora) egun osoz Zubi Nagusian
- 16:00etan **UMEENTZAKO JOLASAK** Kukumixorekin Plaza Zaharrean
- 16:00etan **HELDUENTZAT TAILERRAK** Xaboina, ukenduak
eta **tinte naturalak** egiten ikasteko tailerrak Zubi Nagusian
- 18:00tan **UMEENTZAKO IPUIN KONTAKETA** Nerea Ariznabarretaren
eskutik Plaza Zaharrean
- 21:00tan **KANTU AFARIA** Domentx eta Benirekin Plaza Barrixan
Tiketak salgai Gaztelupe, Arrano eta Iratxon
14 € helduak, 12 € ikasle eta langabetuak eta 6 € umeak (6-12 urte)

